

BIZKAITARRAI
BIZKIERAZ
37n. ZENBAKIA
AZILLA
— 1980 —



BASERRIA
ERRI LARRIAREN
EZAUGARRIA

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia

ERIOZ-MIÑA

LANKIDEAK

Lana aurrera eroateko, lankideak, benetako lankideak eta ugariak bear dira. Sarritan bakar-lanean ekiten dogu, eta alan bear, baiña gure lana zabala ta iraunkorra izateko, taldea inguruan sortzen dogu. Bakarrean asten ba'gara be, laster asmauko dogu taldearen bearkizuna.

Eta taldeak sortzea, lankideak aurkitzea gauza erreza izan ez. Gaur guztiok bizi gara lanez samaraiño beteta, ito-bearrean. Alan esaten dogu beintzat.

Orregaitik, lan batzuk egiteko beintzat, gizon elduakana eta iñoz zar-sarituakana urreratzen gara. Eta pozik ar-tzen dabe lana, gogotsu egin be bai. Ez dira izaten laguntzaillerik txarrenak: Ba-dakie bizitza zer dan, euskaldunak jatorrak eta abertzaleak izaten dira, zer irakatsia ez jake falta... Aurrelari lez eta lan beroak egiteko, gazteak bear dira, baiña neurrizko eragiñean elduak eta sarituak be euren egiten dabe.

* * *

GALPENA

Olako elduen artean, epe laburrean galtze negargarri bi izan doguz Euskalerrian: Jon Oñatibia ta Xabier Peña. Oraindiño urte batzutan lan egiteko sasoikoak biak. Jakituriz eta ezibidez bete-beteak euskera arloan...

Euren bizitza lan egokiz bete izan dogu eta urtetxu batzuk bear ebezan lan orreri burestuna ezarteko... baiña deia eldu jakenean joan egin bear eta joan egin gura, bata iztripuz, bestea gaisoz, baiña joan...

* * *

EREDU BI

Euskerearen bideetan eredu eder bi izan doguz Jon eta Xabier.

Jon irratiz eta eres-bidez euskerea irakasten maisu. Eta zelako gorapenak izan ditun! Oraintsu Leioa'ko Laterri-Arteko Euskalzaleen Batzarrean, irakasle ospetsu batek bere ikasbidea on bakartzat emon eban.

Eta Xabier, 25.000 ikasle Bilbo'ko kaleetan izan dituana. Guda-ostean Bilbo'n eta talde baten barruan lenengo ikastolea sortu eban. Eta bere gramatika erreza zenbatentzat ikasbide izan dan! Azken urteetan dana eres-mintzetan edo kasetetan jartzeko bideetan ziarduan asper-gaitz izan dogun langille sutsu onek.

* * *

JOANAK JOAN...

Gizon eldu ta jakituriz beteriko onein lan-tokiak beteteko, ba-dira gazteak. Egia esan, ugariago nai gendukez, baiña an-or-emen agertzen dira.

EUSKERAZALEAK gazteai dei egiten dautse egun onetan. Zatoze ta bete egizuez utsik geratu diran lan-tokiak! Artu joaten diran gizaki elduak zuen eskuetan jarten daben Olinpo-Zuzia eta jarraitu euskerea indartzen eta zabaltzen!

* * *

EUSKERIA

Ba-dakigu lan-artean gogotsu diarduzuena. Zuen eguneroko lana, jakasketak naiz lantegietakoa alde batera, asko doaz zuekana lana eskintzera, ez bear ba'da lan ordaindua, baiña bai Erriak egun baten esker onaz ordainduko dautzuena.

Politikan lan egiteko eskatuko dautzue, eta egin, bearrezkoa da; erlejiñoan be zuen laguntza eskatuko dabe eta emon, arlo arduratsua da; gizarte-arazo gorriak agertuko dautzuez eta sindikatoak zuen laguntza bearko dabe eta eskiñi laguntza ori; gazteagoen kultura ta eziketea osotu-bearra be izango dozue... baiña, lan guzti orreitan kontuan izan euskerearen arazo gorriak eta batzuk, gitxienez batzuk, zuen bizitzak oso-osoan eskiñi egiozuez lan oneri.

Beste arlo guztiak itun, goibel, triste geratuko litzakez gure Errian, euskerea galdu ondoren. Guztiok dakigu zelako egoera larrian dagon gure euskerea: Askok erderaz egiten dabe, beste askok euskera oso traketzta, eta alde guztietatik erdereza entzuten da... eta Euzkadi'n gagoz.

Begiratu Jon'eri, Xabier'eri, eta artu euren bizitza luzean izan daben bide eder eta onuragarria.

Gogo mindua

G O I R I A

*Nire biotza artega dago
Zugan atsedendu arte.
Agustin doneak*

Nire gogo, Jainko maitea,
gexorik dago... itenez;
zergaitik dozu errukarria
itxi bakarrik illunez?
Zergaitik ez Zuk ain ona izanik
deitu izkera bigunez?

Emen naukazu biotz-atean
Zuri alaka ta miñez;
zergaitik nozu galtze-zorian
itxi bakarrik samiñez?
Zelan ez artu or magalean
laztan samur ta urdiñez?

Zu barik Jauna ez dot pozarik,
gentza, zorunik ludian;
ezin naz bizi, Jauna Zu barik,
bizitz-bideko gabian;
Zu bear zaitut, Zugaz baturik
bizi gura dot bakian.

Mirotz gaiztoak-gogor artuta
dardarka daukat gogo,
ekaitz-sumiñak bereganduta
galdu bear du. GAXOA!
Nire biotzak maite zaitu-ta,
zabaldu zure altzoa.

Maitasun-eske biotz-atean
dozu gaur nire gogo;
ez itxi, otoi, galtze-zorian
luzatu zure besoa:
piztu eidazu biotz-barnean
maitasun bizi-beroa.

Zure biotzan jarri gura dot
betiko neure kabia,
or izan ezik ez da zorunik,
guztia illunpe lodia:
artu nagizu maitari gaurtik
izan Zu nire kabia.

Bilbao - 1930

* * *

Orain dirala berrogeta bi urte...

Begoña'ko Andra Maria'ri otoitza

*Bizkai guztia zure aurrean
Otoika dozu apalik...
Amatxo, arren, ez gaizuz itxi
Atsekabeen bakarrik!...*

*Aspaldidanik Euskel Erria
Zurea dozu osorik...
Zelan, ba, orain itxiko dozu
Etsaien mende «loturik»?...*

*Zergaitik, Ama, orren asarre
Zure Euskel Erri gaixuaz?
Orren gaiztoak izan gaituzu?
Ain txarrak, Ama, gu zugaz?*

*Ez al gara gu antxiñaldiko
Asaba zarren semeak?
Edo ez doguz zintzo jarraitu
Euren oitura-bideak?*

*Zergaitik, Ama, bakean ordez
Daukagu guda gogorra?*

*Zergaitik lengo pozen lekuan
Eroan bear zigorra?*

*Zergaitik diges umeengandik
Aingeruen irriparra?
Eta gazteen begialdetan
Orain dario negarra?*

*Zegaitik orain aitita zaarrak
Ez dabe ipuiñik edesten?
Amama onak seaska alboan
Zergaitik ez dau abesten?*

*Zer dala ta, Ama, iges ein yako
Euzkadi'ri zoriona?
Zelan galdu dau guda baltz onek
Euzkoen Aberri ona?*

*Gaiztoak izan garealako
Etorri yaku zigorra?...
Ama maitia! Oin damaturik
Ordaindu nai dogu zorra.*

*Zure esku zabal neurribageak
Zaintzen ginduzan euzkoak,
Zure bitartez bialtzeuskuzan
Pozak eurrez Jaungoikoak...*

*Esker-tzarreko izan gara, bai,
Benetan, Ama maitea!...
Baiña gaur auspez, apal, daskaguz
Zure erruki ta bakea.*

*Betorkigu, ba, erruki ori,
Zure onespen goitarra...
Guda ayendurik bake gozoan
Txukatu daigun negarra!...*

*Gure Zaindari Ama zaitugu;
Zaindu, ba, Bizkai maitia!...
Euskel Erriko Erregin zara...
Azkatu Euskel Erria!...*

*Bizkai osoa zure aurrean
Otoika dago apalik...
Amatxo, arren, ez gaizuz itxi
Atsekabeen bakarrik!...*

Nanaclares de Oca'ko espetxean,
1938-8-15

Batiz'tar Bingen Karmeldarrak egindako neur'titzak

“IRU BEIEN ZERGAZ” EZAGUTZEN DA

Gure idazlantxu onen idazpurua, ez-da ipuin baten izena, gitxiago izkirimiri ta barregarri batena, benetako eginkizun-edesti edo kondairazko-arena baiño, jarrain gure idazlan onetan ikusiko dogunez.

MUGAN

Urtero-urtero Uztalla'ren —Garilla esaten dogu Sabin-darrok, berak garbi ta argi orretara irakatsi euskulako— 13'an Martin deunaren Arria edo «Piedra de San Martin» izenaz ezagutzen dan lekuan ospatutzen da, Erronkari eta Beretous (Bearne) aranen arteko mugan. Bertan batzen dira Erronkaritar eta beretoustarrak urtean mugan betetu dan erabagi edes-titsu bat ospatutzeko.

BELARDIAK

Noiz sortu zanari buruz iñor ziur ez ba'dago be Iru beien Zergaz eza-gutzen dan opakizun ori, Erronkari'ko belardiak eta urak erabiltzeagaitik burrukatan ildakoak zirala-ta, sortua dan, zalantzarik ez dago.

Gure esku-artean dogun argibide batek adirazoten emoten dauskunez, 1975'ean ospatu zan zerga orren oiturako itaunben lez ezagutzen danaren 600 urte betetzea. Lenago idatzitako itunbenik ez dogu ezagutzen.

IRU BEI

Orain sei gizaldi edo mendetako agintza-araudi bat jarri zan, bertan

agertzen danez, Aratte'koak belardiak erabiltzeko eskubidea dabe.

Ertzaiak bear daben beste ur erabili daike.

Erronkaritar eta beretoustarren artean il-dakoen parkamena egin da eta, azkeneko oneik errokaritarrai emondako agintza edo edo eskintza bete, iru bei bi urtekoak, adar eta ulle berdintsuak iñolako ukaldi edo kalterik gabeak, eta abar dirausku itunben orrek.

BELAGUA'RA

Belagua ta inguruko mendidi guztiotan eta bai «San Martin»go arri ortan ainbat bider egonak ba'giñan be, jai ospetsu orretan iñoz egon bageak gintzazan.

Asmu bizia genduan jai ori ikusiteko eta, orixe dala zio, beste ainbat erritako mendigoizaleak lez, Galdakano'ko berrogeien bat mendi-zale be bertan izan gintzazan.

Aurreko egunean berebil aundi batez Belagua'ko zelekada ederrera lo egiteko eldu giñan.

ERDERAZ

Igande goizean, eguraldia be ona ta argia agertu zan-eta, goizeko bederatziak baiño lenago «San Martin'en Arri» onduan gintzazan.

Batzuk Arlax eta urrunagoko aitzetara eta beste batzuk Leja edo Lexa mendira igon ondoren amabiak baiño lenago Martin deuna'ren Arri edo mugarri ondoan zabaldu barri daben leunkadan aurkitzeko.

Amaikak igarota asi zan jaupa edo meza, Frantzi-tar Gotzain batek beste apaiz bi lagun zituala ospatua, baiña, prantzeraz mintzatzen ziran-eta, abo-utsean geratu gintzazan bertaratu gintzazan euzkaldun da erdeldu-nak.

Orixe bai, txonitzan, sermoian, egin eban gaztelaran, bertaratu ziran napartar eta «Españ itarrai» zuzenduaz, nai-ta itz orren tartean esan bae-ban bera be «vascon» zala, uste dogunez ez ekian euzkeraz.

ZIÑA

Jai ortara aurkeztu ziran Erronkal'eko agintariak, jai ortan oi dabenez, euren aintziñako jazkeraz jantzita, aurkeztu ziran eskintza artara eta, meza amaituaz batera asi zan ziña itzal eta begirunerik aundienaz. Alkarrren gainean eskuak agintariak jarri, gaztelera da prantzeraz itunbenak irakurri, barriz izenpetu ta iru beiak aukeratuaz amaitu zan ainbat anei edo milla notiñen aurrean ain entzute aundikoa dan ospakizun baketsu ta ikusgarria.

Jai amaitu ondoren, dana zan bertan alaitasuna. Frantzez, españar eta bai-ta bertan gintzazan euskotar askoren tarteko alkartasunaz.

Asieran esan dogunez, lenengoz izan gera jai ortan baiña, ez da azkenengoa izango Jaungoikuak urte batzuetako bizia emoten ba-dausku.

ALTUNA'TAR JOSU

LEKAIMEA IÑUDE

ZINERA

Atzo Mikel eta Kepa zinera joan ziran. Len sarritan joaten ziran baiña orain ikuskiña daukagunez eta karuegi danez, urtean iru bider joaten dira.

Ikusi eben pelikulea, oso polita zan. Igaz ikusi neban pelikula ori ta jende guztiak zinetik negarrez urten genduan amaiaiatik pozaren pozez. Ikusgarria da.

Olan zan pelikularen egitura.

* * *

LEKAIME-GAIA

Alemanian lekaimegai bat lekaime-etxe batera eldu zan. Bere izena Miren. Egunero mendietara joaten zan eta an egoten zan Jaungoikoaren lanari begira otoitz ordura arte. Lekaike nagusiak agiraka egiten eutson ia beti berandu elduten zalako.

Beste lekaime batzuk zoraturik egoala uste eben egunero-egunero mendi tontorrera joaten zalako. On-ona izan arren okerra zan beti ezer esan barik alde egiten ebalako.

* * *

IÑUDE-BILLA

Egun baten gitxi gora bera ogei ta amabost urteko jaun bat iñude baten billa lekaime-etxera eldu zan.

Gizona ezaguna zanez zuzendariak urrengo egunean lekaimegai bat bere etxera joango litzakela esan eutson.

* * *

BALDINTZAK

Mendietatik eldutean lekaime nagusiak Mireni deitu eta esan eutson.

Atzo Scheiller jauna etorri zan iñude baten billa, eta zu zara onena mutil batzuk zainduteko, nire ustez.

Bost seme-alaba daukaz iru mutil amairu, amar eta lau urtekoak, eta neska bi amaika eta zazpi urtekoak.

Oso esaneakoak dirala esan eustan.

Zer deritoxozu? An jan eta lo-egingo dozu eta astelenero izango da zure jaieguna.

Miren'ek erantzun eutson:

«Ederto, umeak asko guztatzen jataz».

* * *

ETXE ARRIGARRIA

«Orduan barbarik be ez geiago. Egizuz zure farbelak eta aurrera».

Amarretan Scheiller'ren etxera eldu zan. Etxe aundi eta zuri bat zan. Etxe-inguruetan lorategi asko egoan eta udaberria zanez zugatz-landaretan orriak eta loreak erne ziran.

Atea jo eban eta morroi batek zabaldu eban. Morroiak esan eutson.

—Egunon! Au Scheiller jaunaren etxea da. Zer nai dozu?

Miren'ek erantzun:

—Ni iñude barria naz.

Otseiñak sartzeko esan eutson.

Sarrerako gela, aundi-aundia zan. Une batzuk igarorik Scheiller jauna agertu zan ate aundi batetik.

Nor zan itaundu eutson eta ezagutu ondoren txistu bat jo eban.

Beingoan bardin jantzitako iru mutil eta neska bi mailladitik jatz ziran.

Zerrenda bat egin eben, lenengo zarrena eta azkenik txikiena. Euren aitak ia oiñetakoak garbi-garbiak eukiezan begiratu eutsen. Iñudea arrituta ta zurtz eginda egoan.

* * *

AMA-ORDE

Mutillak gudariak lakoak ziran, «Bira-erdi egin ta aurrera, bat bi, bat bi...»

Jaunak bere seme-alabei esan eutsen:

—Emakume au Fraülein Miren da, zuen iñude barria. Berak esaten dauena egin bear dozue. Ulertu dozue?

Umeak batera erantzun:

—BAI.

Jaunak Mireni txistu bat emon eutson onetara bere seme-alabei deituteko.

Gure lekaimegaiak ez eban adituten zelan aita bat alangoa izan zeitekean bere umetxoakin.

Bere asmoa irakurri ba'leu lez jaunak esan eutson:

—Orain iru urte il zan euren ama. Urte oneitan nigaz bizi izan dira baiña zeu amaorde bat izan zaitezela gura dot.

* * *

ASIERAK

Miren'ek buruaz baietz erantzun, ondoren, neskame batek bere lo-gelea erakutsi eutson. Oso argia zan eta balkoi bat eukan lorategi alde-
ra.

Ordu bat igarorik txistua eta gero oiñ-atzak entzun ebazan. Jatxi zan eta afaria egiteko ordua zala ikusi eban.

Lenengoan mutillak zaindutea gatx-gatxa zan, oker-okerrak zirala-
ko e a iñude eukiteko zarregiak zirala asmatu ebalako. Apurka-apurka Miren'ek mutillen gogo osoa irabazi eban.

* * *

MENDIAN ABESTEN

Gau baten, oiñeztu eta trumoiakiko ekaitza izan zanez, bost muti-
llak Miren'engana joan ziran bildurraren bildurrez.

Beste egun baten mendi batera joan ziran olgetara. Askaria artu ondoren iñudeak esan eutsen:

—Abestu daigun. Ba'dakizue abesti au? DO gizoni esaten da...
FA urrin da inglésez...

Mutillak gorri-gorri geratzen ziran abestuten ez ekialako.

Egun areitan abestuten ikasi eben, euren aitak jakin barik. Bere emaztea il zanean aitak sekula ez abesteko agindu eutzen.

* * *

EMAZTE-GAIA

Scheiller jaunak emaztegai dotore ta aberats bat eukan eta bere umetxoentzat amaorde on bat izango litzakela asmatzen eban.

Mutillai ez jaken guztatzen emaztegaia baiña euren aitaren aurrean beti ixillik egozan, barbarik egin barik.

Euren amaordegaia begikoa izan arren, eurek beragaz azpeltu egi-
ten ziran.

Umeak beti Miren'i esaten eutsoen euren aitagaz ezkozteko baiña berak eziña zala erantzun eutsen lekaimegaia zalako.

Ille batzuk igarorik Scheiller jauna Miren'egaz maitemindu zan. Ludiko lenengo gudea eldu zan eta Scheiller jauna arerio bat zala-
koan, bere billa politzia bere etxera joan zan.

Bitartean urtean egoan eleiz baten Miren eta Scheiller jauna ezkon-
du egin ziran eta ezkon-barriak eta bost seme-alabak mendietarantz
iges egin eben.

* * *

ERBESTEAN

Amar ordutan ibilli ziran, Miren'ek ondo ezagutzen ebazan men-
dietatik mugara arte.

Erri aretan askeak ziran.

Len beste aberatsak ez baiña zoriontsu bizi ziran.

Ikusten joan nintzanean ez neban uste pelikulea ain polita izango zanik.

ASTRID BARONA

ITZIAR

Miragarria Itziar'en genduan batzarra. Esan leitekean, bai, zalantza barik, JEL'en batzar nagusia, Euskalerrri osoaren batzarra izan zala. 200 millako jentetza Gipuzkoa'ko mendiartean. Ze erakande txalogarri ta paregabea! Ze bake ta alaitasun ederra nabaritu zan! A zan poza ta anai-arteko batasuna!

Aurtengo iraillaren azken-igandiar buruz, asko be asko esango dala uste dot. Nik be neure ur-tantatuaz, nire idaz-lantxoaz, zertxo baten esku-artzea gura dot.

IBILLALDIA

Goizean goizetik jagi eta, Abando'koa izan arren, Errekalde'koen batzoki inguruan bizi nazanez, oneikaz joan nintzan Itziar'era euren l'garren berebil aundian.

Zortzi ta erdietan urten giñan zugatz bakar lerdnaren ondoko enparantza txikitik eta amaika-amaikatan eldu Itziar'eko bostgarren zabaldira, zelaira.

Bilbo'ra biurtzean ordu bat baiño ez genduan emon: Itziar'etik zazpiretan urten eta zortziretarako, Bilbo'n, abesti alaiz etorrerea egin-ondoren.

ELTZEA GAITXA

Geienentzat gaitxa izan zan Itziar'era eltzea: amabost kilometroko berebil txiki ta aundien lerro ta illara izugarria zan inguruetan.

Gutziz Itziar'eko zabaldietan kokatu ziran berebil aundiak, millatik gora izan ziran eta ogei millatik gora txikiak.

Eguraldia benetan pozgarria: asieran odeitsua eta gero txo baten argi goa ta on-ona. Noiz beinka sargori pizka bat be izan genduan.

OSPAKIZUNA

Uri-erakundeen ibilketaz eta agintarien zolairurantz joeraz asi ziran jaiak.

Gure azken-Lendakari izandakoak, Leizaola jaunak, ikurriña jaso eban.

Azpillaga ta Lizaso bertsolariak euskal kutsuzko giroa berotu eben.

Ez noa guztiak aitatzen, baiña andik laster polito mintzatu ziran beste aberrietako ordezkariak: Katalandar batek, iparraldeko Euzkadi'koak eta iparraldeko katalandarrak egiatzko kataluña ta Euzkadi bizi dirala esan euskuen. Luis Ribas eta Konde Galizi'tarrak batetik eta EGI'koak bestetik be labor eta ondo mintzatu ziran.

ARZALLUZ'EK

Azkenez, Arzalluz'en txandea eldu zan eta luze ta gogor itz egin euskun.

Ona emen bere itzaldiko gogapen batzuk: 85 urte oneitan erria beti gugaz izan dogu. Gure eskubideak, gure

nortasuna ta olakoak aitatu ebazan eta geroago ta autarki geiago lortzen dogula be, gogoratu euskun.

Igaz agindurikoak lortu ditugu: Araudi edo estatutoa, jaurlaritzta, Garaikoetxea jauna Lendakari, Lege-batzar edo parlamentua Pujana jauna buru dala.

Gerketarren «Kalendas Grekas» eta euren agintze-oi-turai buruz be itz egin eban.

Geuri buruz, ez doguzala berba ugariak beste barik entzun bear, berba orreik zelan beteten diran ikusi be egin bear dogula esan eban.

Iraduz barik eta gelditu barik geure eskubideak lortu bearrean gagoz.

Diru-oin itunpenak be bearrezkoak jakuz eta orrelan jarraitu eban bere berbaldia luzatuz...

BAZKARIA

Jentea zabaldietan banandu zan bazkari legea beteteko.

Berein jente, ni tarteko nintz: la, txabol-soto estalira abiatu giñan. An Zarauz'tarrak, Urduliz'tarrak, Oñati'arrak... bazkari gozo ta merkeak eskiñi euskuezan: Zukua, txipiroiak, atuna, lukainkak, tripikiak, oillaskoak, solo-moak... Urduliz'ko indaba gozoak eta barazki ezeak jateko erea be izan genduan.

Ordaiña, geienetan 150 lauerlekotik 300'era izaten zan.

IRUJO TA GARAIKOETXEA

Orain urte bi dirala. Olarizu'n, orduan be ZER'en idatzitako genduan lez, eguzki-galdatan txapel barik egoan Irujo jaunari nire txapela eskiñi neutson eta pozik artu eban bear.

Aurten be arrastaldeko bostak-edo zirala, gure beste napar Garaikoetxea jaunari «bizkaieraz» idatzitako gure ZER illerokoa emon neutson. 34'garren zenbakia, uztaillekoa, zan.

JOLASAK

Amaitzeko, jolas batzuk aitatu bear.

Aizkolarien artean Arria II ta Mendizabal, Irazu ta Zabaleta korrikolariakaz txandatu. Mendizabal eta Zabaleta garaille bakoitza bere kirol-saillean.

Perurena arri-jasotzaillea, Eguren gaztea, Lastur'tar «zezentxo»...

POZA-BEAR

Olako egun pozgarriak igaro bearra daukagu euskal-dunok: Biotz-alaitasuna bear dogu gaurkoak lako egun mingotsetan..

ARREGI'tar Josu'k

Leioia'an azterritarrak eri-euskeraren alde

LEIOA'KO BATZARRA

Joan dan illaren azkeneko astean, «Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak» ospatu ditu Leioia'n Euskaltzaindiak.

Euskalerriko eta, Euskalerritik kanpo, beste Nazio batzuetako Euskera-zaleak bildu dira «Jardunaldi» oietarako Leioia'n.

Ba-ziran an Iparramerikarrak, Frantziarrak, Alemaniarrak, Olandarrak, Iglanderriarrak, eta Japoiindarrak...

Atzerritar auek danak Euskaltzaindiaren kontura etorri dira eta bizi izan dira, dirudinez, Leioia'n.

Ba-nuan, orregatik, esker onak eraginda-edo, Euskaltzaindiaren goratzarrea egiten bero-bero asiko ote ziralaren bildurra!

Gizabideak ala agintzen ziela usterik, «el batua»ren garaitza abesten asiko ote ziralaren bildurra.

Gizon jakintsuenak ere ez bait daude uts-egin aal izatetik yare, libre.

Gizon jakintsuak dira Leioia'n bildu ziran atzerritarrak; izkuntzariak, Unibersitateetako irakasleak; Euskera ondo ezagutzen duten gizonak.

Ta gizon jakintsu oiek guri, EUSKERAZAINTZAREN bide:ik gabiltzanoi eman digute arrazoia.

EUSKALKIAK BIZIRIK GORDE!

Ori izan da Euskera-zale atzerritar jakintsuek eman diguten enengo agindua. Bizkaiera bizirik gorde! Gipuzkoera bizirik gorde!

Ori izan da EUSKERAZAINTZAREN betiko leia. Oriarako sortu zan EUSKERAZAINTZA: Erriko euskera, auda: EUSKALKIAK bizirik zaintzeko, Euskalkiak bizkortzeko.

Maite ditu EUSKERAZAINTZAK Laburdiera eta Zuberoera ere, baña gaurkoz ez du ikusten Euskalki aien alde. Zuberoeraren alde batez ere, zer egin dezakean.

Eriotzako miñak jota dago Zubero'ko Euskera, Frantziko erdera sartu bait da lurralde eder artako erri aundietan.

Oso gutxi dira gaur Zuberoeraz mintzatzen diran euskaldunak. Euskalki eder ari arnas emateko, Euskalki ua eriotzatik gaizkatzeko (salbatzeko), zer egin?

Euskakalkiak dira Euskera, esan digute Laioa'n atzerritar jakintsuek. Eutsi bizirik Euskalkieil

«EL BATUA» EUSKALKIEN ERAILLE

Zenbat aldiz esan dugu guk oril Bâ... ori esan dute bâ. Leioia'n atzerriko jakintsuek ere. Joan dan illaren 17'an, omenaldi bikain bat eratu zion EUSKERAZAINTZAK, Zeanuri'n Aita Larrakoetxea euskal idazle bizkaitar jotorrari.

Zeanuri'tik Markiña'ra, omenaldi-ostean, Aita Zubikarai karmel-darrarekin beribiliz nentorrela, «otsoak arkumeak jaten dituan bezala 'el batua' ere naitanaiez ilko dizkigula Euskalkiak», esaten nion Ondarru'ko praille gazte oni.

—Euskaldunok esnatzen ez ba'gera, «el batua» egingo zaigu izkuntz, idatzi bakarra. Euskalkirik ez da ez izparringietan, ez aldizkari ofizialetan, ez ikastetxeetan, ezta ikastoletan ere, erabiliko. Soilki ikulluetan, kortetan. Gauza ofizialetan es da ez Guipuzkoerarik ez Bizkaierarik erabiliko.

Andik egun batzuetara arriturik etorri zitzaidan Aita Zubikarai, esanaz:

—Arrazoi zenuen. «El batua» Bizkaiera iltzera dator. Atzo, emen, Bizkai'ko erri txiki-txiki bateko jaien egitaraua (programa) ikusi nuan, eta... «el batua»z idatzia zegoan!

Bigaramonean, Markiña'n bertan, bertako Andra Mariren jaiak adierazten zituan iragarkia (kartela) ezarri zuten erriko ormetan. Goitik beera, dana, «el batua»z idatzia zegoan!

Eranegun Galdakau'n nintzan. Okel-denda baten gañean «Aragitegia» zegoen dotore idatzia. Giputxok ez dugu «aragitegia» esaten, «arategia» baizik. «Aragitegia» ez da iñun esaten. «Aragitegia», «el batua» da, antza. Ta, Bizkai'n «aragiari» «okela» esaten zaion ezker, zergatik ez ote zuan Galdakau'ko arakiñ arek bere dendaren gañean «okeldegia» idatzi?

—«El batua» Euskera iltzera dator, esan zidan Aita Zubikarai'k. Egia zion. «El batua», eukalkiak erailtzen dituan bezain laister, berez ilko baita bera.

GREZI'KO IZKUNTZA ZAARRA

Ia beti aipatu izan dut nik, «el batua» onen aurka idatzi dedan aldi guzietan, Grezi zaarreko izkuntza.

Elertiaren (literaturaren) barrutian, munduan izan dan izkuntzarik bikaiñena eta aberatsena. Ez dakit zergaitik besteek ez zuten izkuntza eder ua, Elenera, kontuan artzen. Orain, Atzerriko jakintsuek aipatu digute elenera. Zorionez!

Gure Euskera laukoia dan bezala, laukoia izan bait zan elertiko elenera ere. Emen, euskera, Gipuzkoera, Bizkaiera, Laburdiera eta Zuberoera da: laukoitza, lau erakoa. An, Elenera, Joniera, Atikera, Doriera ta Eoliera zan: lau erakoa ura ere; laukoitza.

Gure Euskeraren eredu, Elenera izan bear dugula, esan digute jakintsu atzerritarrek, eta ez Espaiñ'ko Gaztelera. «El francés y el castellano son idiomas muy unificados y los bascos los utilizáis como si fueran modelos exclusivos», esan zuan alemaniar batek. «Frantziara eta Gaztelera izkuntza zeroo batua dira: Euskaldunok berri, beste-rik ez ba'litz bezela artu dituzute eredutzat».

Gaztelera ez diteke euskararen eredu izan!

Baiña, «el batua» sortu zutenak, berak uste gabe, Gaztelera zera-bilkiten buruan eredu! Berak uste gabe, izan ere, espaiñeratik al zuten gutzia iges egiteko asmotan ari bait ziran «el batua» sortzean. Baiña berak uste gabe, Euskera «espaniartu» egin zuten: «kastellanizatu». Gaztelaren era, itxura, ez ezê, izpiritua, gogoa, ere gaztelaren gogoa eman bait zioten.

«EL BATUA» EZ DA EUSKERA

Itxura eta anima, espaiñolak ditu. Gazteleraz pentsatua dago; Gazteleraz pentsatua eta euskeraz idatzia, edo Euskeraren antzeko mordolokeri batean idatzia. Orregatik da ain gogorra, ain zakarra, ain ulerkaitza, ulertu-eziña.

LA UNIFICACION A LA ESPAÑOLA

—Orain dala bi urte, Bergara'n, Euskaltzaindiaren Biltzarrean, Txillardegí'rekin ari nintzan izketan.

—Orduen Liturgi'ko Euskera batu ederra da, zion arek.

—Bai? Joan adi oraintxe Batzarrera eta esan'zak ori, eta besterik gabe egiña zegok euskaldunon arteko pakea. Danok ontzat artzen dia-gu liburu ortako Euskera ederra.

—Bai, baiñan... Euskera ori, baiña H'ekin!

—Zertarako dituk, erriak ikusi ere egin nai ez dituan alperrikako H'oiak?

—H'rik gabeko Batasuna, «la unificación a la española», izango litzakelako.

Ara bâ. Atzerritar jakintsuek ditenez, «la unificación a la española» egin zuan Txillardegí'k ETA'ren izkuntza izateko «el batua» sortu zuanean. Euskera «espanolizatu»!

EGI-BILLA

Egiaz maite-mindurik
goiz batean, goiz-giozetik,
basora urten nintzan, kezkatu-rik...
Eta otsoarekin topo-eginik
itandu neutson:

—Egunon,
otso, otsoko!
Ezagutzen dok ik inon egia-rik?
—Oa, gizon, erantzun eustan, oa gorantz gorago...
Egia-rik otsoen artean, indarrean,
aserrean, gudu eta burrukan
ez dago.
Joan adi gorago.

Egiaz egarriturik, ezin egonik,
basoan sartu nintzan...
Eguerdia zan...
Iturri bat aurkitu nuan,
eta an erle bat, goizeko lan ondoren,
iturrian, egarria kentzen, asetzen.

—Erle, erle bizkor, langile,
zu zara egi-zale,
egia non bizi dan ba-dakizu?—
Arren, esaidazu.

Eta erle zoliak erantzun:
—Lagun, ni emen nabil gau t'egun,
ara-ona, lorez-lore egaz
lanean, bearrean, izerditan,
baiña egia-rik ez dut ikusi...
Nor da egia ori?

Egiaz goseturik, nekaturik,
baso itsuan sartu nintzan,
eta artzain zaar bat aurkitu nuan,
arratsaldean, txabola aurrean,
ogi-gaztaia jaten...
Ardiak inguruan gozo ausnartzen...

—Gabon, aiton,—esan neutson,—
egia dut maite, egia dut bear...
Egia-rik ikusi dozu or basoan zear?
—Bidazti, zergatik zabiltza kezkatu,
negarrez, nekaturik,
egia-aren atzetik?
zatoz barrura;
nire txabola zaarrera
sartu zaitetz...—
Eta sutondoan, berotan,
ogi-gaztaia jaten genduan bitartean
esan eustan:
—Egi-billa, seme, ez joan inora...
Begira zeure barrura...
Egia zeu zara...
Zure adimena, Jainkoaren argia da,
Goikoaren begia.
Zaindu egizu argi ori, garbi.
Zure naimena, indarrik andiena da.
Or dozu benetakako askatasuna.
Ez zaitetz inoren morroi egin,
Ez zaitetz lotu, ez atsagin, ezta urrezko kateekin.
Utzi, seme, zure barruko txoriari kantatzen,
eta ikasi suge-gorriari burua zapaltzen.—
Au entzunik,
nik ez dakit nola,
nire barrua, bereala,
eguzki argi egin zan,
eta ez nuan geiago ikusi
ez txabolarik,
ez ardirik,
ezta artzain zaarrik.

Nor zan artzain zaarra?
Nire kontzientziaren deadarra.

GOIKOETXEA TAR INAKI

Itziar'era bidean
Igande goizian...
Belbide zabalán,
urdiñan, belbillak
ba duaz egazka,
ikurriña atzian.
ondiño goizalde...
Lañua inguruan.
Baserri, zugatzak,
erriak, zubiak,
danak atzerantza;
belbil erreskadak,
aurrera bidian.

Eskuman, or goien, ta laño gania
Tabira'ko atxak, buru agurgarriak.
Nik esango neuke, dirdiraz dauzala!
Euzko erria azten ikusi dabenak;
ain beste anei urte, azke izanda ta,
zapalduta eun urte, gorpuaz antzera...
Orain buru jaso, ta gora jarritzen,
berbiztu da erria. Asabak pozarren
atz-tonterretatik, geure begira.

Gu, aurrera beti...
Ezkerraz uriak, uri nagusiak:
ormadi goiluze, biltzen dira bertan.
Atzian geratu, gu beti aurrera.

Barrero mendiak, ta mendi aldapean
ardiak lakoxe
basetxe zuriak, dauz bananduta.

Au da geure erria!
Geure Mikel Deuna,
zeure egun ospatzen ba-guaz eta,
zu buruzagia, zaindu beti Euzkadi.
Geyenak garanok,
onenak gaitezan, lagundu biar.

UTARSUS

MUNIATEGI 'TAR SABIN, OLEKARI (II)

EDER ERITXIA

Tinta asko joana da ederrari buruz idazten, eta joango be bai. Idatzi-bear ortatik, gaiñera, ez bait jaku norbere eritxia esizterik gustatzen, ainbat aburuko agertzen dira kritikarialiak: zenbat buru, ainbat aburu geienik.

Orduan ez dakigu, edo doi-doi dakigu, bako txak zer adierazoz nai dauan gai oni naiz ari buruzko idatzietan.

Poesian daukagun ederra gure barruak, ezpirituak sortua da, gure arimeak bero-azo ta arnasaz goritua.

Ez da, beraz, egiteko erreza eder orren muiñera jatxi ta barnean dauan xalotasun guztia, era askotakoa jaso ta kritikalaneez ulertzen emotea.

Edertasunaz bako txak dau bere eritxia, bere gustua, ederra ikusi ta jasoteko era; ortik, bada, oni atsegin jakona, urliari ez jako eder. Eta onek gisa askotako aburuak sortzen. Askok diñoe, gaiñera, ederra bera ez dala gustatzen dana, irudimenari adibibez atsegin jakona, arimeari ta gorputzaren egoera batzuei egoki datorkiena nunbait, olerki-lanak muiñean dakarren egokitasun osoak errazoiari emon oi dautsan atsegiña baiño.

Ortakoz, olerki-lan baten edertasuna, zein irakurriz zein entzunez, jaso, epaitu ta ederkera-arloari eder-begiakaz so-egiñik, ebatzia emoteko, ez da naiko niri atsegin jatana beste bariarik, lan orretaz ezeren dudamuda bage, ederra dala baieztea.

Askoren eritxia aintzat artzekoa dalarik be, eskolea bear dau olakoak, eta ez edozelangoa, olerki lan bat, dala dalakoa, aztertu ta epaia emoterakoan.

Latz-ikara ta naieza senti-erazo oi dau, ez gitxitan, ariñegi ta suster bage arrotu eritxi bada-ezpadakoak.

* * *

SUAK GARBITU

Artia'ko seme ta olerkari jator dogun Muniategi, ez da jauzi oker orretan.

Idazten dauanean zuur doa arira; zur onekoa danez, jakin zur onak ezpal ona ekarri bear.

Bako txak dau bere idaztankera, pentsamentuak eta biol dardarak adierazteko era berezia, olerkariak batez be.

Adimenak asmatu dauan, ernemin daukan gogoiari, naimnak, biotzak ezarri bear dautso dardara, ta teknikal jantzi Ona irudikizun bat.

Ba'leiteke guztiz egoki ez etortea, baiña adierazo nai dote na naiko argi jarten dau, ziur asko.

Or arragoa meatez beterik —burua ideiaz—, eta or su meatzta dizdiratzeko; suak dagi aldakuntza. Meatzta, arrago ta sua bear ditugu olerki lanean be, lan bikaiña izango ba' d beintzat.

Au da, gure ezpirituaren aalmen eta indarrak lan egin bea dabe, danak alkarregaz eta batean. Adimenak lortu gaia, na menaren eragin joria ta izkuntzaren jantzi ñabarra.

* * *

OLERKARI DOGU MUNIATEGI

Bai, olerkari; gaztetatik asi zan barru emonkorra, sorburu dantzari lez, kanpora jalgi-azten.

Aurreko artikuluan esan genduan, Filipinas'tik ibilli zala arako ta onako osteran, konta ezin ala jente, izadi ta edertasun ikusiaz, borborka asi jakola eder-untzia.

Or beronen aurreneko poesi-liburuxka: «Goiz-aize» (1936)

Lauaxeta'ren itzaurreaz argitara emona.

«Gaur arte izan doguzan olerkariakandik —diño Lauaxeta'k— zerbaitek berestu darua Muniategi. Bere begiak daukaz Gitxigan aurkitu daikegu gazte onengan aurkitzen dogun ederti-miña. Gauza guztietan idoro darua edertasunaren zantzia. Euzko-Elertiak asko itxaron daike mutil onengandik».

Eta arrezkero? Itxarokizun orren fruturik izan ete dogu?

Bai orixe! Artiar eder-zalea ez jaku iñoiz aspertu olerkigintzan.

Naiz-eta ari ta oni ezpan-kiñu maltzurra loratu-azo. Muniategi ez da poesi bat edo bi idatziaz olerkari dirala uste daren orrean artekoa; onek lanari lotua, ekin eta ekin jardun izan lau bizitza guztian, eta onakoak txapela erastea merezi daukenu.

1970'ean azaldu euskun beste neurtitz-sail mardul bat: «Bilean gora». 98 poesi dira guztitara, txukun osotuak eta txukun arriak.

Nik onela itzaurrean: «Olerkaria, urtez urte, esperientziak eta biotz-zirraraz azi, ugaritu ta edertu egin zaigula ezerean lotsa gabe aitortu bear. Izadi-aro berri bakoitzak bere lillura berezia du, urtetik urtera izan ere. Jaiotza berriak, lenak ez zuen zerbait baitu. Giza-adimenak, giza-biotzak, Eder'ari begira begira, bere udaberri ta udazkenak ditu. Zein obe? Epailari zoliaren sardaiak ere ez du emen errazki ebatzi al izango»

* * *

BIDEA, GAI

Au be esaten neban ondorentxoan:

«Olerkarietan ere bakoitzak du bere arima, bere gogo. Ta dazterakoan, nork ez du bere-bere duen zerbait, intz tantoa delar ertzean bezela niriñir uts lagatzen? Orla dagi Muniategi'k ere. Asko idatzi du Euskalerriko izparringi ta aldizkaririk geienetan, eta or utzi digu garraxiz, intziri leunez, maite-miñez, negarka, ondo-naiez bere anima osoa. Ederki diño sarrerako poematxoan: «Biotzez,/ arimaz,/ biribildu/ ta jantzi nai nituke/ ene bizitzako/ egunok;/ neure lurraren/ aldeko maitasun/ ta sugartzez;/ benetako goitura/ maitetsu/ ta gogorik zindoenez...»

Mundua, ta guk Euskalerrri au, barriztu nairik, lanean ikusten ditugu asko.

Beronek be arlo orretan jardun gura dau.

Lan, bai, zuzentasunaren alde.

«Bidean gora» dau titulua bere poema sailak. Eta biotz-ikaraz ta luma atz-artean, mundura urten gurarik, bideratu da kantari. «Bideratu nadin» asten dan poeman, onela:

Atera nadin gogoz, zintzotasunez,
azkatasunaren bide nekegarriz...
gizarte, aberri, zuzentasun alde,
iñoizko bidegiterik alkartuenez.

Argi ta garbi, maitezko izkilluakin
jo ta ke, bideratu nadin bai, pozez;
bideratu nadin gogoz gau ta egun,
ele bizi baten langaillu sendoakin.

* * *

BIOK BIOTARA

Naasia da mundua, ta olerkariak bide egin nai dau gizar-tearen trinkotasun ortatik zear.

Ixilla maite dau, ta alan be. Itun Zarreko igarle iduri, kantuz doa intziri artean, bere itzen gozotasuna, bere esanen garratza giza-biotzetan barrendu opa dau-ta.

Ortarako be lagunak bear. Eta bein neskatx batekin topoe egin eban bizitz-bidean, aldatz-gora joiala noski.

Beretzat ete?

«Eta, bat-batean —diño—/ zure eskuakin jabetuz/ neuretu nintzan/ arako/ goizbide aregi/ zean.../ zeru berriak oartzuz/ zure begi artean./ Bai biozkada goitarrak/ biok biotara./ egan!/ Olaxe/ eskuz-esku/ eta./ bizitzan gora.../ oinkada bakoitzean/ geureagotuz/ barnean ditugun/ zeruko illargi/ ta izar!/ Dana/ amets-itxaropen erditzez./ bada, bai, bizimin./ gogozko alkarte/ ta nai batean.../ arantza ta lorez,/ dana betiraunka./ biok biotara.»

Biok biotara, sendi eder bat osotuz, Jainkoa goratuz, erria abestuz, doa Muniategi'ren bizitzaldia, bikian, onurakor, artista.

Izadia abesten du, udabarri ta udagoien, zugatzak, mendiak, arkaitzak, aizea, itxasoa... Gazteen ibillaldiak abesten ditu, ames-lilluraz sustartuak, ikusterik baikorrenez loraz lora dabilzanak. Arratsalde erdirantza dantzari ikusten dauz plaza betean, eta artiarrek kantatzen:

Arratsaldeko seiretan
enparantza erdian,
eskuak zabal,
soiña lerdan, beatz puntan
aize baiño
ariñago zebiltzan!

* * *

AMA KANTAGAI

«Ama» kanta-gai izan da literatura guztietan; poetak, esker onez, aspertu bage abestu izan dabe bizia emon eutsoen emakume leun, samur, maitekorra.

Irakur Muniategi'k ondutako amalauko au, «Ama bati» deritxonaren lenengo aapaldia:

Bere esku laztan, esku biozkor, esku txukunez...
len neska garbi, eder izana, maitekor eta lirain,
gaur, ama lerdan, etxeko andre maratz ta bikain,
bizi-alegin bulartsuetan sendiaren maitetasunez.

Auxe dogu-aundika Muniategi'ren poesia, berak bere barrenetik ateratakoak asko eta itzulpenak —Alberti, Fernández, Matxado, Altolagirre, Gartzia Lorka, Ibarbourou, ta abar— ez gitxiago.

Bipil eta giartsu dabil lirika barrutian.

Aapaldi bero gizonkiro landuak daukaz, euskera jatorrez jantziak. Olerkari dogu Muniategi.

AITA ONAINDIA

Cuba barrutik (III)

LINCON HOTELA

Cuba'ko lurra zapaldu ostean, hotel onetan izan neuazan leen egunak.

Bertakoak esaten eustenez, ostatu oso ona zan; euren iritziz, onenatarikoa.

Niretzat, egia esan, ez zan onela, ez antzik be: Bizkai-ko edozein ostatu zaarren antz geiago euan. Edo, obeto esateko, «Oeste»-ko (Sartalde) ostatu zaar bat iruditzen jatan.

Argibidetzarako zeaztasun batzuk emongo ditut:

Ez egoan urik egun guztian eta dutxatu nai euanak, goizeko 6'etatik 6'30'ak bitartean egin bear euan. Bestela, arratsalde erdirarte legorrez iraun bear izatea euan.

Arratsaldean beste ordu baten bakarrik izaten zan.

Ordu erdi onetan ostatuko langilleak gure baiñerak betetzeko ardura izaten euen, gauaz etxera biurtzean egun barruko izerdiak kendu gengiazan.

* * *

OSTATU BARRIA

Egun batzuk bertan igaro ondoren, apartamentu batzutura igarotzeko erabagia artu neuan.

Oneitan atzerritarrak bakarrik bizi ziran. Geienbaten, errusiarrak, bulgarriarrak, poloniarrak, eta abar.

Ez zan aundia, ez: sukalde bat, logela bat eta komuna euazan.

Azkenengo au dutxa eta guztikoa zan.

Ez zan erosoia, baiña oituratu bearra egoan: zeozegaitik esaten dogu sarritan «atzerria otso-erria» dala.

Etxetxo onein inguruan denda bat gendun.

Janari erosketetarako txartel berezi bat aurkeztu bearra izaten gendun. Txartel onetan gure izen-abizenak, lana eta abar agertzen ziran.

Zer esanik ez, janari-denda ori atzerritarrentzakoa bakarrik zana. Emendik «txartela» erosketetan aurkeztu bearra.

* * *

EMAZTEA

Orain arte be esan dot, baiña, kubatarren lanera patxada aundikoa da.

«Euskaldunen itza» eskatu ondoren, emaztearen pape-
rak zortzi egun barru konpondu ebezala esan egin eusten,
esan. Orain... bete... Kostatu jaken bai itz ori betetzea.

Lau aste luze igaro ostean, alkartu giñan.

Oso luze egin jatan. Egia esan, niretzat Cuba eta Cuba'ko bizikera beste mundu bat ziran.

Propagandak alde batera itzirik, bertan bizi barik ezin da siñestu be egin zer dan a.

* * *

ASIERAKO ADISKIDE BATZUK

Asierako asteak naiko txarto igaro neuazala esan be-
rrrik ez dago.

Une nekegarri oneitan ondo eta asko lagundu eusten adiskideak be izan neuazan: euskaldun batzuk, asturiar-
rak, madridetar bat, kataluñatar bat eta abar.

Cuba'ko egoera oso ondo ezagutzen euen, eta eurei esker, gizarte barri aretan errezago sartzea lortu neuan.

* * *

LANA

Nire lana ardura aundikoa zan. Emengo lantegiak bialdutako tekniko bat nintzan, eta Cuba'ko gure erosleari aalik eta ondoen erantzun bear neutsala-eta nengoan.

Egia esan, asiera baten gogotsu asi nintzan. Ni baiño ariñago joandako batzuk bereala urreratu jatazan aolku batzuk emotera, eta, beste batzuren artean, nasaiago jokatze-
ko eskatu eusten, bestela neure osasuna galtzeko arris-
kuan aurkitzen nintzala-eta.

Barriro aitatu bear gure lanerako gogoia eta kubatarren patxada berezia.

* * *

KUBATARREN SOLDATAK

Lantegi bateko langille onentxuenak 180tik 220 peso'-
ra bitarteko soldatak dauetz Cuban.

Pesetetan esan bear ba'gendu, 18tik 22 milla pesetata-
ra bitarteko soldatak dauetzala esango genduke.

Ingeniero batek, esate baterako, bere laneko leen iru urteetan 25.000 peseta inguru irabazten ditu. Iru urteak igaro ostean, 30.000 peseta inguru eskuratzen ditu.

* * *

KUBATARREN LANERA

Zuzen esan bearra dot, Cuba'n iñork ez dauala lan geiegirik egiten: amabi langilleren artean egiten daben edozein lanetan, lau bat bean etzunda eta lo aurkituko dituzu; beste iru eskuetan irratia dabela egongo dira; beste bi edo iru aurreko egunean beizbolean izandako jugadak aitatzen edo eztabaidatzen. Lanean, lanean esateko, bi bakarrik izango dira.

Cuba'ko langilleak eta gure soldaduskako lan egiteko gogoak antz aundia daue.

(Jarraitzeko)

PIRU LEGARRETA

JOKOAN ITXARON

EROAPENA

Las Vegas'ko joko-tokietan, erlojurik ez ei dago. Ori dirudi, beintzat jokolariak ikusi leikeen lekuetan ez dabe ipinten erlojurik.

Zergaitik dan? Erlojua ikusi ezkerro, jokolariari trebetasuna gixituten jakolako. Irabazteko, gura doguna lortuteko, itxarotea bear-bearrekoa danez, jokolari ta arrantzaleen onoiemenik nagusiena, itxaropena da.

«Santuen eroapena dauko» entzuten dogu sarritan. Onoiemen ori da, izan be, santutasuna agertzen dauan ezaugarrietariko bat.

* * *

ANDRAZKOA NAGUSI

Andrazkoen ontasun eta onoiemen berezia ei da eroapena.

Gizabide-jakintzak irakasten dquana da, andrak gizonak baiño samintasun, oiñaze ta nekaldi geiago ta luzeagoak eroateko gai dirala: egoera zail eta gogorretan ez dira kikiltzen.

Baiña eroapenari andren onimena esan arren, andrak be egiten dabez euren utsak onoiemen onetan.

* * *

BARRU-AGERPENEA

Eroapena edozeiñen barruaren gogozko baretasuna edo bardintasuna agertzeko bidea izaten da.

Gure bizitzan itxaroteko trebetasun au bear-bear dogu.

Gauza guztiak geureak eta oraintxe izatea nai izaten dogu: Zoriona, maitasuna, zuzentasuna, bardintasuna, obekuntza... gure soiñekoak garbi, gure ulea ondo orraztua, gure lapikokoa ondo, janariak gertu, arpegi ona ta beste milla gauza oraintxe ta berton nai doguz.


Jainko-Erreiñua ondoan ei daukagu, baiña bere ikuspen aundirik onetan ez da agiri. Itxaron-bearra daukagu.

* * *

ARAZO-MIÑAK

Gizartearen aurrerabide ta biotz-aldaketea luzatu egiten da eta orrek mindu egiten gaitu.

Gudate gogorrek, gorrotoa, gogorkeria, diru-zalekeria, itzaltasunik eza, txiroak zapaltzea, eta beste gaitz-



min konta-ezin asko gure inguruan nekez eta samiñez ikusten doguz.

E'a ez jaku atsegin itxarotea.

* * *

OTOITZEAN

Itxarotea bera, eroapen baketsua, otoia da.

Eroapenean uts egitea, otoitza iztearen ondorena izaten da. Eroapen barik ez dago benetako otoitzik.

Ez dogu eukiko otoiaren arnasarik, itxaroten ez ba'dakigu. Otoitza eroapenean itxarotea da.

* * *

SARTALDEAN

Armiarma ez da gure artean erlejiño-irudia, baiña bai Ameriketako indiar-artean.

Sartaldeko leiñu-erri dan Hopi'k euren liburu santuetan andra doatsu bat dauke. Jainkoaren ama da, baiña ez da Miren bere izena, Armiarma da andra au. Eta eroapena gogoratuz, Jainko ta gizonen bitartekoa da.

Gure bizitzako zeregiña berba bategaz apurtzen ba'dogu, euna konpondu egin bear dogu.

* * *

DANEAN

Eroapena bear dogu alkarragaz, zarrakaz, gazteakaz, nagiak diranakaz, Jaungoikoagaz. «Isillik egon Jainkoaren aurrean eta itxaron» (36n. eresian).

Aldi-une onera arte jesarri eta baketsu itxaron bear dogu, eta itxaropen onetan poza artu.

Poza artu itxarotean! Gogapen aundia benetan au!

LETONA'K

Urtetsuen atsedena

SAMINDUENAK

Sarri askotan idatzi dogu zer-bait urtetsuen arazoak ebatzi nairik.

Munduan diran saminduenak zaarrak izatea baleiteke.

Gizadiak urtetsuak baztertu egiten ditu eta, norainoko batzuetan! Ba dira ortik zear eutanasia ontzat artu bear dala diñoenak eta geroago ta geiago izan bere.

ZORDUN

Zarrakin zordun gara, eurakan-dik onura asko artuak garealako.

Eurak бага ez gintzazan bizi-ko.

Euren lan guztia, euren mai a-sun osoa gure alde izan da.

Ori pitin bat bakarrik ausnar-tzen ba'dogu zintzo-zintzo, bai gi-zon lez eta, geiago dana, kristau lez, eurai laguntzen alegindu bear gareala egiz ikusiko dogu.

ZAR-ETXEAK

Erruki-etxeak eta, batez be zar sarituen bizi-leku ederrak, aspaldi ontan zabaldu ta geituak dira, bai-ña ondiño urtetsu asko baztertuak ikusten dira an or emen.

Zar-etxeak ederrak izan arren, tamaltasuna agiri da eurotan.

Etxe orreitan gauza bat ez da-go; Sendi-maitasuna. Guztiak ur-tedun ikusteak, gogaitu ta aspertu egiten dauz an diranak.

SENDIAN

Ondo baiño obeto dago bizi-leku ederrok iregitea, bear daben guztiak nora joana izan dagien.

Lenengo ta bein, seme-alabak, al ba'dabe beintzat, ez begiez bi-

daldu euren zarrak etxe orreitar-a, euren egoera zorionekuena etxeko ta sendiko maitasun epeltasuna dalako.

Eta, etxean euki ezin ba'dira, zer egin zaarrakin?

Orduan bai bidaldu zaarren bizi-leku diren etxeetara; baiña eu-rakaz ez aaztu, sarritan jazoten dan lez. Sarritan ikustatu eta orre-lan biotzeko maitasuna eurai era-kutsi.

SENIDEAK

Bai euren sendiagaz bizi dirane-tan eta Zaar bizi-lekuetan bizi di-ran zaarrak ikusten dira iñoz as-pertuta, gogaituta, arpegi maku-rragaz; indar gutxigaz, osasun makalduagaz, begietan argi gutxi ta begirakun motela dabela.

Leen esan dogunez, aurrenengo euren senideak dagoz beartuak orren bizi-tza bigunduteko.

BESTEAK

Eta enparauok ezin geinke zer edo zertxo egin urtetsuen alde?

Guk egin geinkezan gauzatxo bi jatortadaz burura: Bata erri guztiko zaarren alde eta bestea abade zaarren alde. Oneik bere zartzaro larria daroelako askotan-Erriko zaar guztien alde egin gei-keena auxe da: Noizean bein zar-rak geure etxera deitu, sendi guz-tiagaz batera bazkaldu ta jardun dagien.

Orrela sendiko gazte ta zarren artean, une zoragarri bat igaroko dabe lagun arteko maitasuna iku-sirik eta mundu onetan gaiñez ez dagozala konturaturik.

ETXEAN

Au izango litzateke era ederra, zarren bizia poztuteko, ta eurai, ondiño bearrezkoak dirala adiera-zoteko.

Ain gauza gogorra litzake gure-tzat ori egitea?

Ez, iñundik bere, eta orrelan gure zarrak begi argidun agertuko litzakez, baserri, kale ta enparan-tzetan.

ABADEAK

Bigarren, abade zaarrakaz zer egin?

Eurak be gure barruko bizi-tza-ren gurasoak dira.

Mundu onetar dana alde batera itzi dabe erriaren serbitzurako, eta zartzaroan bakartade aundian aurkitzen dira askotan.

Florenzia'ko gotzain jakitun ta santu batek idatzi eban bein: Aba-deak, aita edo ama azkenengoa il-ten danean, il bear leukiela, zar-tzaroan bakartade aundian ez jausteko.

BESTE ABADEAK

Erri guztiak beste zarrakaz lez artu bear ditu abadeak bere, baiña batez be beste abade gazteagoak. Auxe be bai: Abade zarrentzat elizgela edo sakristi danak zabal egon bear litzakez, euren etxean lez bertara joateko nai daben guz-tian, bildurrik бага, an arpegi alaiak aurkituten dituelako.

Ikusi dagiela ondiño ez dagoz-la gaiñez mundu onetan.

Egin bear oneik bete dagiguzan gaurtik zarren bizi-tza leundu eta mundu au atsegingarriago egin dagidun.

ZAR-GAZTE

Bermio'ko sarituen bazkuna

Bermio'n daukaguz zarrontzat, bazkun bi, au da, zar saribazkun bi.

Bat, Bizkaiko Aurrezki Kutxa'k egin dauskuna, eta Istituto Social de la Marina'k egindakoa bestea.

Au dago, Kai edo Portuan, eta Arana Goiri'tar Sabin enparantzan bestea.

Zarrok eskerrak damotsoeguz biotzez biei, gu zarrokaz oroitu edo akorda diralako, eta oroituz, BAZKUNAK egin deuskuelako.

Enparantzakoaren LEN-IGIRIA edo «INAUGURAZIOA» ospatu da, 78garrengo urtean eta ain zuzen, Bagilla edo Ekaiña'ren 10'ean kaikua, 79'garrengo Urtarrilla'ren 18an.

Gure aurreragoko zarrak euki bazezan guk daukaguzalako bazkunak!

Bizkaiko Aurrezki Kutxa'k egin dako bazkuneko orduak onexek izan dira asieratik urte onetako (80) Bagilaren 30'era arte: Goizean, 10 1/2' etatik, 1 1/2' etara. Arratsaldean 3 1/2'tatik, 8'tara.

Larunbatean, 7'tara arte.

Asieran Aurrezki Kutxa'ren aginduz Igandea izan da bazkuneko morroiaren «ATSEDEN-EGUNA» (alaxe izan bear dau-ta) baiña gu zarrok ez giñan egon konforme.

Orduan zer egin?

Olako egun batean Aurrezki-Kutxa'ko ordezkari dan emakumea etorri zan bazkunera eta agertu geutsan geure kezka esanaz.

—Guk zarrok naiago dogu Igandez igirita egotia eta itxi dagizueta

edo itxi dagiala, zeuek edo berak au da, morroiak aukeratu dagizuen edo aukeratu daian asteko egun batean, asteko ATSEDEN-EGUNA, ospatuzeko berak be.

Orduan aukeratu dabe, MARTITZENA, au aukeratuz, gu zarrok geratu gara korforme.

Onela iraun dau urte onetako Uztailla'ren l'eraño.

Uztailla'ren 3an imini euskun Aurrezki Kutxa'ko ikurragaz sarrerako ateko leiarrean «kristalean» castellano idatzitako ingi bat eta bazkun barruan beste ingi bi, bardin onela diñoenak: Invierno. Horarios: 10,30 a 1,20 y de 3,30 a 8,30. Sábado, hasta las 7. Descanso: domingo. Lunes, mañana. Verano, horarios: 10,30 a 1,30. Tarde: 3,30 a 8,30. Descanso: sábado por la tarde y domingo.

Kaia'ko bazkuneko orduak aunexek doguz: Igandea izan ezik, beste sei egunetako orduak: 10,30'tatik, 1,30'tara.

Arratsaldean 3'tatik, 8,30'tara. Igandea atsedeen-eguna.

Bizkaiko Aurrezki Kutxagure erriko bere bazkunean ipinitako ingiagaz, ez gagoz guztiz konforme!

Zergaitik? Errozoi txiki onegaitik: Len, enparantzakua ixten ebenean, joaten izan gara, kaiko bazkunera.

Gaur osterera, biak ixten deuskuez egun baten, au da, Igandean.

Biak egun baten ixten deuskuezan ezkeru, ez daukagu egun orretan bazkunik.

Onegaitik ez gagoz bazkuneko geienok bazkideak, konforme.

Onexegaitik bultzatu naiz ESANNAI oneitan.

Lan oneikaz iñor iraintzen ba'dot parkatu dagistala.

Bizkaiko Aurrezki Kutxakoei bertsoz be jarri kantatzen, euren bazkunen zar saridunok guztiok pozik egoten; jarri euskuen aldakutzekez ez gaituez gu poztutzen, euren ingia irakurriaz asi gara naigabetzen.

Laburtu eñaz orduak eta egune bere aldatu, aldakutzeak jarri euskunak zarrok asko naigabetu; naigabetza orrek geuron barrena egiten dauku tristetu, zarron gustora ez ba'dauz gauzak ezin barrenak alaitu.

Len bezelaxe iraun daiala egin euskuen bazkunak, ondo mereziz daukagulako ZAR SARIDUNAK GARANAK; Lenauko zarrak euki ba'zuen daukagulako bazkunak, neure ustetan oker ez banau eukiko zun poztasunak.

Euren bazkunen ni bazkide naiz orreitxik asi lanetan, idaz-lan txiki eta bertsuaz zioa ikusiz bertan; eurek parkatu egin daiztela nik iraindurik benetan, kezkaturlan egonintzan da bultzatu esan-naietan.

BAZKIDE BATEK

AGUR ANAI IÑAKI!

Biotza urraturik, idazten dot idazkitxo au.

Ia amasei urtetan euki dogu Bilbo-aldean gizon omengarri bat: Iñaki Olabeaga, Salletar Anai zintzoa, izan da gizon ori.

Donostiar txalogarria bera, gizon bikaiña, praille sinisteduna, oso oso, euskaldun purrukatua.

Apala dalarik, ez dau nai goratzarrerik, baiña, nai ta, nai ez, ni ezin ixildu berari esker ona agertu baga.

Praille gazte gaztea zanetik, beti euzkera landu ta zabaltzen alegindu zan, orregaitik azken guda gure artera eldu zanean, erbesteratua izan zan.

Urteak atzerrian igaro ondoren, ostera Zarautzeko euren ikastetxera biurtu zan.

Euskal zale agertu zalako, Gipuzkoa'ko buruzagiak, Gipuzkoatik atera eban.

Arboledan Sestao'n ta, azkenez Bilbo onetan gazteen ezitzaille argi ta langille izan zan, ori bai, beti euskerea agirian ebala.

Beti beti erligioso Jainko-zalea, Maixu trebea ta euskaldun aspergabea. Olerki ta bertso liburu mordoskatxo bat bere argitalduak ditu.

* * *

Baitipat, berari esker ona, emen euskal liturgiaren alde egiña dauan lan aundiagaitik.

San Anton eliza onetan, Bilbon lenengoz, euskal meza, burrukalari, ipiñi genduanean, Anai Iñaki utsean eskeindu zan lan egiteko.

Euskal eliz abestiak batu, eurak erriari irakatsi ta elizkizun guztiak, berberak zuzendu, izan ziran bere lenengo lanak.

Geroago, Indautxu'ko Karmengo Amaren eta Indautxuko Jesuiten elizan euskerazko meza ipiñi zanean, an be, bera zuzendari.

Urteak aurrera ta emengo eliz askotan ez egoan euskerazko liturgi libururik, edo abadeak ez ekielako euskerarik, edo ez ebelako nai euskerarik, Anai Iñaki an doa bere liburuakaz, sendiak euskerazko illeta nai ebenean, zuzendari ta bizkotzaille.

Bilbo onetan bere euskal inezak asko ugaritu dira urteak zear, eta geitze orretan be, Anai Iñaki'k zati aundi bat ipiñi dauala, ezin ukatu.

Amasei urte oneitan arlo onetan egin dauan lanari, zenbatu ezinekõa deritxat.

* * *

Baiña eldu da tamal-eguna: 79 urte dituala-ta, bere nagusiak, zar saritu lez, Irungo Salletarren kolegiara bidaldu dabe.

Begietan eutsi ezindako negarra agirian ta biotza egiz arriturik, agindupeko ta esangille dalarik, burua makur-makur, ioan jaku.

Atsedean bearren aurkitzen zan, baiña ba-dakigu an bere euskal arloan jarraituko dauala.

Oraingoz, San Juan Bautista Sallekoaren bisitza ta idatziak euskeralduko ditu.

Ziur nago buru argi ta osasun ona dauan bitartean, eten baga, lan ta lan jarraituko dabela.

Oñdo ezagutzen dot: ezin iraun lanik egin baga.

Emen garan lagunok tamaldurik gelditu gara. Anai Iñaki, nire ta emengo guztien eskerra, biotz onez.

Gure otoiak beti zuregaz.

Bizi sendo, urte luzeetan, orrelako gizonak euskalerrian eta elizan bear ditugulako!

Agur, Anai Iñaki, agur ta erdi.

GALLASTEGI'TAR KAULDI

LAUAXETA

*Lertzen neukan zure irudia
biotzaren odoletan,
Bizkaiko izkuntzaren argia
gozartuz olerkietan.*

*Arranoa mendi gainetan letz
zuk euskera gaillurretan,
izkuntza bizia jalki zendun
olerki mardulenetan.*

*Gorputza il eutsuen burdiñaz
orma zarraren aurrean,
non ete dago zu il zinduzena
bizitz onen bestaldean?...*

*Euzko olerkaria ilkeran,
zer lortu eben ezpataz...
gorrotoz zapaldu ta iltea
ala indartzea biziak?...*

*Euzko olerkariaren zana
nork jakin zelakoa dan...*

*gardena, bizia, odoltsua?...
zurea egiz, ola zan.*

*Gaztea nintzala sortu jatan
arrimen garra barnean,
Estepan, zer zeunkan irakitan
suzko txinparta artean?...*

*Ze eder zan zuretzat Euzkadi,
maite zendun Aberria,
odolezko sumendia legez
zan zure biotz gorria.*

*Ez zendun maite azur gogorrez,
eztia ziñan loretan,
euzko egi ta eder guztia
zabaldu zendun itzetan.*

*Zera aundiak zabaldu dira
Euskadi'ren goi ortzian,
zur? itzaren ota, dardar, dator
Mungira egun-sentian.*

*Oiñeztarriak, dizdiz, egin dau.
Sua zan mendi ertzean.
Itzaren garrak erreko al dauz
arriak gure lurrean.*

*Nai dot. Ba-ditxarot. Sinisten dot.
Lauaxetaren ederra
eguzkia ortzian bezela
zabalduko da goizera.*

*Udabarrian lurra erne-min.
Euzko gaztedi barria,
zer dabiltsu garun zurietan...
jaio nairik olerkia?...*

*Gazte ta ederra bat al dira?
Gazterik il zinduezan
Edertasun guztiaz jantzirik,
Euzkaditik joan ziñan.*

PAULIN

ARRAINTZA

Uda onetako asieran esan neike gure arraintzaleak bai lebatz-zaleak eta atun-zaleak pozik dabiltzala. Iraun da-giela aurrerantzean be, eta danak, poztasunagaz ni pozik nago eta poztuko naiz.

Asierako uda onetan
arraintza onak ekarki,
bereala erosle diranak
eiten ditue erosi;
alderdi biak egin daijala
urte ontan irabazi,
modu onetan asarre-bide
agertuko ez iñori.

Gure Jainkoak gorde daijala
arrisku guztietatik,
orreiñxik batak eta besteak
jokatzen dabiltz gogotik;
Jainkoak alaitasuna nai dot
baltzea zeruetatik,
eta batez be oroitasuna
Jaunaz oroitzeagaitik.

AZPEITIA'TAR GOTZON

IZKIRIMIRIAK

Katalanak oso zekenak dirala diñoe. Neuk ez dakit egia ala guzurra dan, baiña egun baten nire lagun batek barregai bat katalanci buruz edestu eustan.

Katalan bat beti-beti abenduaren lenengo egunetik amabosgarrenarte elizara joaten zan, Jaungoikoari otoitz egitera. Ber otoitzetan beti bardin esaten eban: «Jaungoikoa, mesedez, ba-dakizu emazte bat eta sei seme-alaba daukodazana, eta orrexegaitu loterian irabaztega gura dot eta alan etxetu bat eta janariak nire seme-alabentzat erosiko dodaz. Mesedez, Jaungoikoa».

Urte-urtero len esan dodanez, gabonillaren lenengotik amabosgarrenarte Jaungoikoari oritxe esan oi eutson. Alan ogei ta amasei urte igaro ziran.

Azkenik ogei ta amazpigarrenaren gabonak, eta gizona otoitza egiñez eleizan egoala, Jaungoikoa agertu jakon eta esan eutson: «Baña nire seme ori, ogei ta sei urte oneitan egon naz miraria egin guraz, baiña EROSI EGIZU LOTERIA'KO TXAR TEL BAT».

* * *

Barcelona'ko kale baten katalan bat lurrera begira egoan zer edo zeren billa.

Alako baten bere lagun batek gure katalana ikusi eban eta arrituta itaundu eutson: «Jordi, zeozer galdu jatzu?»

Jordik esan eban: «Bai, ogerleko bat».

Bere lagunak erantzun eutson: «Itzi ba, ogerleko bat iñora be ez doa».

Eta gure katalanak esan: «ORREXEGAITIK; EMETIK IBILLI BEAR DAU».

* * *

—Amatxo.

—Zer gura dozu?


—Ikastolan BURUAUNDI esaten dauste.

—Eta suk, zer egiten dozu?

—Nik eurak jazarten dodaz baiña kale estuetatik joaten dira eta...

ASTRID BARONA

6.^a



Gorri

6 IZKI'koak

Cesta de todos cola, rabo la estaca fija para el remo

5 IZKI'koak

Aseo Helecho, rocío Mella Medida de dos fanegas Oral, vocal Gusto, placer

4 IZKI'koak

Fragmento, pieza Seco Romper Motivó Borde, ala Superficie

3 IZKI'koak

Deseo, voluntad Tres Negación, renuncia así (como aquello) Helecho silvestre

2 IZKI'koak

Morir allí de (los) (posesivo) interjección aquel (usado como agente)

12 IZKI'koak

Anteojó/Telescopio

10 IZKI'koak

Ruina (la)

9 IZKI'koak

Ruina (la)

9 IZKI'koak

Reloj


8 IZKI'koak

Prueba

7 IZKI'koak

Asustar Predilectos Luna Mayo

5.^a ERANTZUNA



Gorri

Argipena:

Bene-benetan Euzkera maite badozu EUSKERAZALEAK argitaratzen daben «ZER» illerokoa irakurri, zabaldu ta erakusten alegindu zaitez.

Gorri

EUSKERAZALEAK

XABIER PEÑA'REN GOMUTAZ

EUSKERAZALEAK. Taldea samintasunez bete jaku Xabier gure lankidearen erio-tzaz. Bai, ondo dakigu, gustiok egin bear dogun bidea dala berak egin dauana, baiña Xabier bear izan dogu eta alde guztietan bere utsunea aurkitzen dogu.

* * *

Lagun ona izan dogu Xabier: Maitekorra, asarregaitza, ulerkorra, biotz-zabala, poz-killea, adoretzaillea, lanerako orduan aurrelari ona. Bere aurpegia beti barretsu, beti entzute-ko gogotsu, beti laguntzeko gertu. Eta orain ez dogu inon aurkitzen.

* * *

EUSKERAZALEAK Taldeak bazkide on bat galdu dau, Lendakari-ordea. Baiña beti isillik, aundikeri barik, inok igarri barik. Sarritan batzarretara ezin etorri izan da, bere irakasle-lanak itzi ez dautsolako. Baiña ez dau ordua aldatzerik eskatu. Isillik geratu da.

* * *

Irakaslea izan da, euskerearen irakaslea. Talde txiki baten barruan berari bururatu ja-kon lenengo ikastolea, guda-ostean Bizkaia'n izan dan lenengoa egitea, eta eragozpen guztiak azpiratu eta egin be bai. Bilbo euskalduntzea izan da bere irakasle-asmu aundia, eta millak dira dakien euskerea berari zon dautsoen euskaldunak.

* * *

Eta idazlea, baiña euskerearen gramatika izan da bere idazlaneko ardura nagusia. Ez liburuz bakarrik, baita entzumenek be, kaseten bidez. Eta zelako ardura sakona artzen eban gauza oneik ondo egiteko!

* * *

Sariketa guztietan bera izaten zan maiko. Sariketak joko lez artu bear dira, bai baiña berak zeaztasun aundiz aztértzen zituan lanak eta beste maikoen eritxiak arreta aundiaz entzun.

* * *

Euskerearen bidean, erri-bidea artu eban eta beti zaindu. Giputza izan arren bizkaie-rea ondo eskuratu eban eta irakatsi be bai. Orregaitik begi onez ikusten eban Euskerazaintza-ren bidea.

* * *

Tolosarra bera, an ezagutu eta onartu eban Kardaberaztarren taldea. Batzarretan bere itza pozik entzuten zan eta kontuan artu be bai.

* * *

ZER aldiakari au biotzez goratzen eban eta gogoz irakurri. Azkenengo Euskerazaleak taldearen batzarrean entzun geuntsozan berbak gure aldetik biotzez eskertzeakoak izan ziran.

* * *

Baiña Xabier isil-isillik bizi izan da eta isil-isillik joan da. Eta orain bere inguruan lan egin dogunok bere isiltasuna entzun egiten dogu, berak itzi dauan utsunea bete-eziña iruditzen jaku.

* * *


Baiña Xabier baiezkorra zan, itxaropentsua, eta orixe dala uste dogu berak itzi daus-kun etorpidea. Berari agur beroa egin eta bere gomutea gure biotzetan dogula goazen aurrera.

OLAZAR'tar Martin'ek

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Coupe en nosotros

Zenue nortea gurean



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**